

SCHUMANNEK EZIN ZUEN PIANOAJO



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Zwickau (Saxonia), 1810eko ekainaren 8a. Robert Schumann musikagile alemaniarra jaio zen. Erromantizismoaren eredu garbientakoa izan zen musikari dagokionez; haren obran pianorako lan bikainak nabarmentzen dira. Eta bere bizitza ere Erromantizismoaren erakusle izan zen; Clara Wieck emaztearekin izan zuen harremanak nobela erromantiko baterako balioko luke. Horrez gain, zoritxarrez, txikitatik gaixotasun mentalen eraginpean bizi izan zen eta haren historia mediko konplexuak zer esan handia eman die buruko osasun adituei. Gaixotasun mentalen eta sormenaren arteko loturaren debatea hauspotu dute haren arazoek.

Bestalde, Schumannek pianoarekin izan zuen harremana ere dramaz bete egon zen. Schumannen aita liburu saltzailea, editorea eta nobelagilea zen eta semeari literaturarekiko zaletasuna piztu zion txikitatik. Baina zazpi urte zituela pianoa jotzen hasi zen eta ingurukoak liluratuta utzi zituen musikarako zituen dohainengatik. Bere karrera hortik bideratzea erabaki zuen, baina aita hil zenean, musika albo batera utzi eta zuzenbide ikasketak egitea erabaki zuen. 20 urterekin, ordea, bokazioak irabazi zuen: Friedrich Wieck irakaslearekin eskolak hartzen hasi zen, pianoa ondo jotzen ikasteko. Handik zortzi urtera



Robert Schumann (1810-1856) musikagilearen ametsa piano jotzailea izatea zen, eta, ambizioak bultzatuta, gailu berezi bat erabili zuen teknika hobetzeko. Hatzak indartu beharrea betiko lesionatu zituen.

irakaslearen alaba Clararekin ezkondu zen eta Clara piano kontzertista bikaina izan zen. Robertek ez zuen lortuko.

Galdutako denbora berreskuratzeko asmoz, Robert Schumannek gailu mekaniko bat erabili zuen hatzak malgutu eta indartzeko, teknika hobetu asmoz. Eskua teklatuaren gainean (edo beste edozein gainazaletan) jarri eta hatzak banan-banan altxatzen baditugu, eraztun-hatza besteak baino gutxiago altxatzen dugula ikusiko dugu garbi; horregatik esaten zaio hatz nagia. Bada, Schumannek hatz horien mugikortasuna areagotu nahi zuen, baina lortu zuena eskuineko eskuko bi hatz kronikoki lesionatzea izan zen. Handik aurrera, ez

zen gai izan piano emanaldi publikoak egiteko.

Ametsa hautsita, musika kritikari, orkestra zuzendari eta piano irakasle moduan jardun zuen, baina, batez ere, konpositore gisa, musika klasikoan funtsezkoak izan ziren pianorako piezak sortu zituen, berak sekula jendaurrean jo ezin izan zituen lan gogoangarriak, beharbada, lesionatu ez balitz sekula konposatuko ez zituenak. ■



PATRICIA MORA / JAENGO UNIBERTSITATEA

Bularreko minbizirik zaharrena

Miguel Botella antropologo forense granadarrak 4.000 urteko emakumezko momia eskaneatu eta aztertu du Asuanen, Egipto hegoaldean, eta orain arteko bularreko minbizirik zaharrena diagnostikatu dio gorpuari. Emakumeak 30 eta 40 urte bitartean zituen hil zenean eta hiru bat urte pasa zituen gaixo, metastasiak gorputz osoa, "behatzetatik burura", hartu zion arte.

Diagnostikoa lau mila urte geroago iritsi zaio gaixoari, baina ikerketak behintzat bi ondorio ateratzeko balio izan du: batetik, egiptoarrek ez zutela gaixotasuna sendatu edo geldiarazteko biderik, baina "bazekiten opioa erabiltzen mina arintzeko"; eta bestetik, bularreko minbizia "betidanik existitu dela, gizakiarekin batera". ■